

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### ZALDUONDOKO UDALA

#### Zalduondoko onura publikoko mendian dagoen egurrerako baso aprobetxamendua besterentzeko prozedura irekia

1. Erakunde esleitzailerak:

- a) Erakundea: Zalduondoko Udala.
- b) Espediente zenbakia: 732/19 azaroa.

2. Kontratuaren xedea:

a) Xedearen deskribapena: baso aprobetxamendua, zuhaitz lote honen baso aprobetxamendurako:

1 lotea. Zalduondoko udalaren "Monte Alto" 732 OPko mendian aprobetxamendua "arriku eta mentura" printzipiopean, baso soilketa bidez, 95 itsas pinu (Pinus pinaster), mozteko neurketaren bolumena 175,58 m<sup>3</sup> delarik, azal eta guzti; eta, "azken likidazioaren edo emaitzen araberako" aprobetxamendua, zuzendutako mozketa bidez, 1.578 ametz (Quercus pyrenaica), 671,53 estereoko bolumenarekin, eta 10 pago (Fagus sylvatica), 3,78 estereoko bolumenarekin.

b) Gauzatzeko epea: 20 hilabete emate akta izenpetzen denetik. Mozketa bakarrik neguan egingo da, abendutik otsailera.

3. Izapidetzea, prozedura eta esleitzeko era:

- a) Izapidetzea: arrunta.
- b) Prozedura: irekia.
- c) Esleitzeko irizpidea: preziorik altuena eta gorantz, oinarrizko tasazioa oinarri hartuta.

4. Litzitazioaren oinarrizko prezioa:

7.968,61 euro (BEZa aparte).

Kontuan hartuta itsas pinuaren kasuan (Pinus pinaster) azken prezioa "arriku eta mentura" printzipioaren arabera zehaztuko dela, aprobetxamenduaren objektu diren materialei dagokienez, eta ametz (Quercus pyrenaica) eta pagoaren (Fagus sylvatica) kasuan "azken likidazioaren" arabera zehaztuko dela, pilatutako enborkiei dagokienez, litzitazioaren oinarria honako prezio hauek izango dira:

1 LOTEA:

ESPEZIEA	EGITATEA	ZUHAITZ KOPURUA	KUBIKAZIOA	UNIT.	UNITATEKO PREZIOA €/UN	GUZTIRA (€)
Quercus pyrenaica	Azken likidazioan	1.578	671,53	Gutxi gorabeherako estereoak	4 €/estereo	2.686,10
Fagus sylvatica	Azken likidazioan	10	3,78	Gutxi gorabeherako estereoak	4 €/estereo	15,11
Pinus pinaster	Arriskua bere gain	95	175,58	benetako m <sup>3</sup> ag	30 €/m <sup>3</sup>	5.267,40
<b>GUZTIRA:</b>		<b>1.683</b>	<b>289,74</b>			<b>7.968,61</b>

## 5. Bermeak:

Behin-behinekoa: ez da eskatzen.

Behin betikoa: eskaintako azken prezioaren ehuneko 5 (BEZa aparte).

## 6. Agiriak eta argibideak eskuratzea:

<http://www.contratacion.euskadi.eus>

Kontratuaren administrazio alderdiei buruzko argibide eskaerak:

Zalduondoko Udala. Arbin auzoa 3, 01208, Zalduondo. Telefonoa: 945 314534; e-maila: [azalduondo@ayto.araba.eus](mailto:azalduondo@ayto.araba.eus)

Kontratuaren alderdi teknikoei buruzko argibide eskaerak:

Mendi Zerbitzua.

Probintzia plaza 4, 1. solairua, 01001, Gasteiz. Telefonoa: 945 181818

## 7. Kontratistaren berriazko betekizunak:

a) Sailkapena (taldeak, azpitaldeak eta kategoriak): ez da eskatzen.

b) Ekonomia eta finantza kaudimena eta gaitasun teknikoa: ikusi administrazio klausula berezien orriko 4 eta 7 puntuak.

## 8. Eskaintzak aurkeztea:

a) Eskaintzak aurkezteko epemuga: 15 egun iragarki hau ALHAOn argitaratzen denetik.

Baldin eskaintzak aurkezteko azken eguna baliogabea bada, hurrengo egun baliodunaren 14:30era arte luzatuko da epea.

b) Aurkeztu beharreko dokumentazioa: ikus administrazio klausula berezien agiriaren 5. puntua.

c) Aurkezteko lekua:

Erakundea: Eusko Jaurlaritzaren kontratazio publikorako plataforma <http://www.contratacion.euskadi.eus>

SPKLaren 15. XGan adierazitako kasuetan, Zalduondoko Udalean (Arbin auzoa 3, 01208 Zalduondo, Araba), jendaurreko ordutegian (9:00-14:00), edo postaz.

d) Behin eskaintza aurkeztuta, oso zergati arrazoituagatik baino ezin izango du baztertu eskaintzaileak.

e) Aldaerak onartzea: ez.

## 9. Eskaintzak irekitzea:

A gutun azala ekitaldi publikoan irekiko da, hamar eta erdietan, Zalduondoko Udaletxean (Arbin auzoa 3, 01208, Zalduondo, Araba), eskaintzak aurkezteko epea bukatu ondorengo seigarren egun baliodunean. Aldez aurretik, Kontratazio Mahaiak "B" gutun azalaren edukia aztertuko du ekitaldi pribatuan eta garaiz eta behar bezala aurkeztutako erantzukizunpeko adierazpenak egiaztatuko ditu.

10. Beste argibide batzuk: ikus administrazio klausulen agiria.

11. Iragarki gastuak: esleipendunak ordainduko ditu.

Zalduondo, 2019ko azaroaren 4a

*Alkate-lehendakaria*

*GUSTAVO FERNANDO FERNÁNDEZ VILLATE*